# BERTSO BERRIYAK GOIKO-KALEKO NESKA-ZARRAK JARRIYAK



Docen erdi bat bertso
bi galarentzako
goiko kalian bizi
diran oyentzako,
desaidia ta farra
neska-zarrentzako,
pozik artuko bañan
ez gaude oyentzako.

Taberna sartu eta
bertsuak kantatzen
goiko kaleko neska
zarrak desonratzen,
oyek ez uste bañan
aukera sobratzen,
oriyek berriz falta
ta ezdute topatzen.

Emezortzi neska-zar
goiko kale ontan
ez dote ta arrio
gaudela penetan,
kontentu bizi gera
gu estadu ontan,
enbidiz ote dauden
nago arrezelotan.

Oyek gure kontura
egin nai dute far
esanez triste bisi
gerala neska-zar,
aukera badaukagu
nai ezkero azkar,
bañan ez degu nai guk
zenbait mutil kaskar.

Goizian etxetikan
uztez irten gizon
ume biurtzen dira
tabernik bada iñon,
esker txarra igual
egiñagatik on,
orlakua artu banan
obe du gabe egon.

Desaidez ari arren
oyek gugatikan,
ez daukagu dote ta
arrio faltikan,
aukera baudaukagu
egiya esanikan
bañan ez degu artu nai
orrelakorikan.

PELLO


# Ureche, S. C.

Mármoles y piedras del país
y extranjeras.
Fábricas de aserrar en Oyarzun
y Rentería.
Talleres de labra y pulimento.
Obras en general.
Arquitectura decorativa.
Monumentos, Panteones,
Mostradores, etc.

Teléf. 6.231 OYARZUN

Talleres Mecánicos

# MARIANO OLASCOAGA

CONSTRUCCION DE TROQUELES
REPARACION GENERAL DE AUTOMOVILES
TRABAJOS DE PRENSA

Teléfono 61-09

Viteri, 40
Francisco Gascue, 6
Rentería